

Jendaurreko zerbitzuekin hasi da Tolosako Udala

Bi hilabetez geldirik egon eta gero, zenbait zerbitzu martxan jarri ditu Tolosako Udalak, Udate, TAO eta Udaltzaingoa, kasu; Hiribusa ere ohiko ordutegian hasi da //2

Adunako Udalak zaintzarako diru laguntzak emango ditu //4

Ugane auzora doan errepidea asfaltatu eta pintatu du udalak //6



IRATISAZAR ARTOLA

AMASA-VILLABONA BONOEK ARRAKASTA

Herriko komertzioak sustatzeko kanpaina martxan da atzotik; 3.000 bonu jarri ditu udalak herritarren eskura, eta atzo eguerdirako 1.000 saldu ziren; ekainaren 30era arte eskuratu ahalko dira udaletxeko erabilera anitzeko gelan //5

AURREmatrikula

2020/21: hasturten



Lan etorkizunerako lehen urratsak
Lan poltsa ETHAZI kompetentziak DUAL
IKASTN Erasmus + IKT Eleaniztasuna

AURREMATRIKULA ONLINE: <https://ikasgunea.euskadi.eus>
PRESENTZIALKI: Derrigorrezkoa hitzordua hartzea:
www.tolosaldea.com eta 943651147

eskaintza guztia
EUSKARAZ

Aurrematrikula egitea beharrezkoa da matrikulatu ahal izateko!



Tolosaldea
Lanbide Heziketa Institutua
Santa Luzia 17 - Tolosa
943 65 11 47
www.tolosaldea.com



<https://www.facebook.com/tolosaldea>
<https://twitter.com/TolosaldeaLH>
<https://www.youtube.com/TolosaldeaLH>
[tolosaldeahit](https://www.tolosaldeahit.com)





Horrelako itxura izango du aurrerantzean Udate Herriarren Arreta Zerbitzuak; manparekin eta erabiltzaileen norabidea adierazteko seinaleekin. TOLOSAKO UDALA

«Normaltasun berrira» begira, pandemiak etendakoa ahazteko

Bi hilabetez geldirik egon diren zenbait zerbitzu martxan jarri ditu Tolosako Udalak. Oraindik ere alkateari mezuak idazteko aukera dute herritarrek

Josu Artutxa Dorronsoro

Pixkana udal jardunean normaltasuna berreskuratzen joan nahi du Tolosako Udalak, betiere hartu beharreko segurtasun eta osasun neurri guztiekin. Horretarako, langileen itzulerarako Prebentzio Plana eratu du. Astelehenaz geroztik zabalik dago Herriarren Arreta Bulegoa. Herriarrak modu seguruan eta egoerak eskatutako prebentzio neurri guztiekin artatzeko, manparak ezarri dira bertan; bestetik, sartu aurretik eskuak garbitu behar dira, eta maskara nahiz erabili beharreko axota etxetik eraman behar dira.

Herriarren Arreta Zerbitzuan aurretiazko hitzorduarekin artatuko dira herritarrak; astelehenetik aurrera eskatu ahal izango da. Horretarako, 943 65 44 66 telefono zenbakira deitu edota udate@tolosa.eus helbidera idatzi beharko dute herritarrek.

Udaltzaingoko ateak ere astelehenean ireki ziren, herritarrei aurrez aurreko arreta eskaintzeko. Datozen egun eta asteetan, gainerako udal zerbitzuek ere arreta presentziala berreskuratuko dute, aurretiazko hitzorduarekin. Hala ere, udaleko sail guztiekin modu telematikoan harremanetan jartzeko aukera dute oraindik herritarrek.

WHATSAPP-A MANTENTZEN DA

Larrialdi egoeran, alkatearekin zuzenean harremanetan jartzeko WhatsApp zerbitzua (688 768 458 telefono zenbakian) abiarazi zuen udalak. «Herriarren artean izandako harrera ona ikusita, kanala mantentzea eta indartzea erabaki dugu, orain arteko zalan-tzak argitzeko eraginkorra eta baliagarria izan delako», diote.

Aurrerantzean, baina, Gobernantza Sailaren esku utziko du zerbitzua, «gobernantza eredu irekiago eta gardenago baten alde». Astegunetan, saileko ordutegian bidali ahal dira mezuak. Horiei «ahalik eta azkarren» erantzungo zaiela adierazi du Olatz Peon alkateak.

Komunikazioak «pisu handia» hartu duela dio Peonek. «Bide berriak jorratzearen aldeko apustua egin dugu». Komunitate izaera sendotu asmoz, Tolosatzeko Eskola Irekiaren proiektua jarri du martxan udalak, eta *laster Guztion artean, Tolosatzen* partaidetza prozesua abiaraziko da, «egoera berri honetan, herritarren eta udalaren arteko elkar-ekintza eta politika publiko-komunitarioak sustatzeko».

TAO ZERBITZUA, BUELTA

Konfinamendua arintzeko prozesuan urratsak eman eta saltokiak eta tabernetako terrazak ireki diren neurrian, TAO zerbitzua ere martxan jarri zen berriz, astelehenean. Herriarrei zuzendutako TAO-aren bulegoa ere zaba-

lik dago, segurtasun eta prebentzio neurri guztiekin.

TAO zerbitzuko ordainketak egiteko, Arinpark aplikazioa erabiltzea gomendatzen dute

TAO makinak maiz garbituko dira; hala ere, ordainketak egiteko Arinpark aplikazioa erabiltzea gomendatzen du udalak. Orain arte Mugipark aplikazioa erabiltzen zen, baina aldatu egin du TAO zerbitzua eskaintzen duen enpresak, herritarrei erraztasun gehiago emate aldera.

HIRIBUSA OHIKO ORDUTEGIAN

Hiribusak, berriz, bere ohiko ordutegia berreskuratuko du. Lehen bezala, Musika Eskolako geltokian hasiko du ibilbidea eta, astelehenetik ostiralera, 07:20an aterako da lehen autobusa. Azkenak, berriz, 21:00ak aldera. Larunbatetan, 8:30etatik aurrera eskainiko da autobus zerbitzua; www.tolosa.eus webgunean kontsultatu daiteke ordutegia.

4.400 erosketa-bonu baino gehiago saldu dituzte dagoeneko

Ostiralean amaitzen da erosteko aukera, eta azken txanpan ere herriko saltokiak laguntzeko deia luzatzen du udalak

J. Artutxa Dorronsoro

COVID-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomikoari aurre egiteko, *Susperitu Tolosa* kanpaina jarri zuen abian udalak. Herriarrek, erosketa-bonuak erosiz, herriko merkataritza eta zerbitzuen sektoreari laguntzeko aukera dute. Hasieran, 147 saltokitarako 7.000 bonu baino gehiago jarri ziren salgai.

Lehen olatua «bereziki azpimarragarria» izan zela diote. Lehen bi egunetan 1.900 bonutik gora saldu ziren. Ondorengo astebetean, berriz, bikoiztu egin zen zifra. Dagoeneko, gainera, zenbait saltokitarako ez dago bonurik. Zentzu horretan, herritarren erantzuna eskertu nahi izan du udalak, «beste behin ere konpromisoa erakusteagatik».

Udalak emandako azken datuen arabera, 4.416 bonu saldu dira, 1.700 herritarrek baino gehiagok erosi dute horietakoren bat, eta erosketa bakoitzari udalak egindako diru-ekarpena gehituta, 150.000 euroko bat-bateko inpaktu ekonomikoa sortu du. «Erantzuna paregabea izaten ari da, eta aurreikuspenak gainditzen ari dira», diote udaletik.

Ostirala izango da bonuak eskuratzeko azken eguna. Bonuak agortzeaz dauden honetan, herritarrei aukera aprobetxatzeko deia egiten diete.

TUTORIALAK, SALTOKIENTZAT

Bestalde, Gipuzkoako Merkatarien Federazioak, Singular Dendak proiektuaren baitan, online plataformen ezagutzan sakontzeko oinarritzko prestakuntza digitala eskaini nahi die, besteak beste, Tolosako merkatariei. Horregatik, sare sozialen oinarritzko ezagutzei buruzko sei bideo tutorial prestatu ditu. Produktuak eta zerbitzuak merkaturatzeko sare sozialek duten ahalmena eta eskaintzen dituzten aukerei buruzko bideoak dira, eta pandemiak sektoreri ekarri dituen ondorioak arintzen laguntzea da horien helburua.

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Garbiketa. Tolosako Garbiketa enpresa batek, gizonetako bat behar du garbiketalaran jarduteko. Ezinbesteko baldintzak: gidabaimena izatea eta esperientzia izatea. Interesadunak, 943 670 626 telefono zenbakira deitu behar dute.

✉ **GUTUNA**

Abastoseko eraikinaren erasoaren aurrean

Maiatzaren 4an Abastoseko eraikineko erabiltzaile batek gazte asanbladako kide bati adierazi zion eraikineko ate mordoa hautsita eta bertako geletako materiala lekuz mugituta zegoela. Hori dela eta, maiatzaren 5ean TGAko bi kide Abastos eraikinera gerturatu ziren eta aurrez jakindakoa baieztatu zuten. Honen aurrean, Tolosako Udalera deitu zuten eta informazioa helarazi zitzaion teknikari bati eta udaltzaingoari. Hauek ez zuten inolako informaziorik. Hori dela eta, aste berean udaletxeak sarraila aldatu zuen eta aste honetan zehar eragileak deitu zituen zerbait lapurtu dieten ikusi eta beharrezko materiala mugitu ahal izateko. Aste honetan bertan ordea, eraikinera sartzen jarraitu dutela ikusi da. Sarraila aldatu bada, nola da posible eraikin barrura sartzea? Itxuraz, kanpoko igogailutik lortu dute sartzea. Harrigarriena ordea zera da, igogailuaren giltzaren esku-

ragarritasuna udaletxeko figura zehatzek dutela. Hemengo sinatzaileek ordea, ez dugu giltza horren eskuragarritasunik. Beraz, agerikoa da arduragabekeria handia egon dela giltza horren jabe den norbanakoaren aldetik. Beraz, nork hartzen du honen gaineko erantzukizuna?

Gertakariaren gaineko argitasun falta nabarmena da. Daki-gun gauza bakarra zera da, eraikina eskuragarri jarriko dutela posible denean eta erabilera eman ahal izango diogula. Bien bitartean, ziurgabetasun handia dugu eragileok. Materiala faltatzeaz gain, geure intimitatea urratu dute. Erabateko kontrol soziala den honetan horrelako gertakariak zalantza asko sortzen dizkigute. Izan ere, nola da posible kalean erabateko kontrol poziala egotea eta honen jakitun ez izatea? Ondorioak betikoek ordaintzen ditugula ikusi da beste behin ere.

**TNT (Tolosako Neska Taldea),
TGA (Tolosako Gazte Asanblada),
IA (Ikasle Abertzaleak) eta
Txozna Batzordea** Tolosa

Aldaketarik ez zahar egoitzetan

Erredakzio

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du, azken orduetan ere ez dela aldaketarik izan Gipuzkoako adinekoen egoitzetan COVID-19ari lotuta. Beraz, azken bi asteetan ez da heriotzarik izan Gipuzkoako adinekoen egoitza sarean. Joan den martxoaren 19an COVID-19 gaixotasunaren lehen kasu positiboak eman zire-

netik, 373 lagunek gainditu dute gaixotasuna, 167 pertsona zendu dira eta 22k diagnostiko positiboarekin jarraitzen dute, hurrenez hurren, %66,3, %29,7 eta %4. Egun, bi egoitza-zentrotan dituzte COVID-19 kasu aktiboak Gipuzkoan, eta horietako bat ospitalean dago, baina ez dute zein egoitza diren esan. Egoiliarrek ekainaren 8tik aurrera jaso ahal izango dituzte bisitak.

Tolosaldeko Lurralde Plan Partziala onartu dute

Orain arte ez dela adostasunik egon eta orain arte ezin izan dutela onartu nabarmendu du Gipuzkoako Foru Aldundiak; azpiegitura berriak egiteko aukera eskaintzen du


Erredakzioa

Tolosaldeko 28 herrietako arduradunak eta Gipuzkoako Foru Aldundia adostasunera iritsi dira Lurralde Plan Partziala (LPP) onartzeko. Eta honenbestez besteak beste, Villabona-Anoeta eta Tolosa-Ibarra hegoaldeko «lan estrategikoak» egin ahalbidetu dela esan du Rafaela Romero Gipuzkoako Aldundiko Mugikortasun diputatuak.

Esan duenez, azken urteetan ez da adostasunik egon, eta horregatik nabarmendu du akordiora iritsi izana. «Datozen urteetan Tolosaldeko herritarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetu ahal izango dira», esan du.

Lurralde Plan Partziala onartuta udalek edota enpresek proiektuak garatu eta aurkeztu ahal izateko bidea ireki dela esan du Romerok, eta «garapen mistoa» eman ahal izango dela, jarduera ekonomikoa eta bizitokiak kontuan hartuz, eta ekipamendu berriei atea irekiz.

Diputatuak erakundeen arteko lankidetzan jarri du azpimarra; «horrenbeste urtetan geldirik egon den proiektua bideratu ahal izatea oso pozgarria da». «LPP honen onarpena konpondu gabeko arazo bat zen eta egin beharra zegoen», gaineratu du.



Tolosa-Ibarrako «lan estrategikoak» egin ahal izango direla nabarmendu dute. M.U.

Esan duenez, Donostialdeko LPPa 2016an onartu zen, eta Tolosaldea zen sei zonaldeetatik lurralde antolamendurako lan ildoak zehaztu gabe zituen bakarra. 2005ean eta 2006ean onartu ziren Debagoiena, Debarrena eta Urola Kostakoak, eta 2009an Goierrikoak.

Romerok azaldu du, LPPak zonalde edo eremu bateko garapena ordenatzeko ildoak zehazten dituen erremintak direla, eta Tolosaldekoak eskualdeko herrietako etorkizuneko hirigintza orokorrerako planteamendua zehazteko oinarria zehazten duela.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



Jesus Maria Arrieta Saizar

(Maria Arantxa Uzkudunen alarguna)
2020ko maiatzaren 6an hil zen.

*Zure alaitasun, esku-zabaltasun, adiskidetasun eta
irrifar txikiarekin geratuko gara.
Eskerrik asko, Jesusmari.*

Uzkudun-Uranga familia

OHARRA: Hileta elizkizuna, ostegunean, maiatzak 28, 19:00etan, Tolosako San Frantzisko Elizan izango da.

Krisiaren zama arintzeko laguntzak emango dituzte

Adunako Udalak COVID-19ak eragindako alarma egoeraren ondorioz sortu diren hainbat egoera arintzeko urgentziazko laguntza deialdia egin du

Erredakzioa Aduna

Adunan, 12 urte bitarteko haurren edo adingabeen eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzarako egin diren kontratazioak diruz lagunduko ditu udalak. Kontratazio bakoitzak gehienez ere (bizikidetza unitate bakoitzeko bat) hilabeteko 600 euroko laguntza jasoko du, beti ere jardunaldi osoan egoten bada. Gainerako kasuan lanaldiaren arabera laguntza murriztuz joango da. Zaintza eremuari dagokion eta indarrean dagoen Lan Hitzarmentaren betearazpena ziurtatu beharko da eta Adunan erroldatua egotea ezinbesteko baldintza izango da laguntza hau jaso ahal izateko.

Bestalde, COVID-19aren ondorioz 12 urte bitarteko adingabeen edo menpekotasun egoeran dauden zaintzarako soldatarik gabeko baimen eskaerek sortutako kalteak konpentsatzeko laguntzak ere emango dira. Laguntza 600 eurokoa izango da lan jardunaldi osoko murrizketa eskatu bada, beti ere hilabete bateko epean eta bizikidetza unitate bakoitzeko pertsona bakarria erreferentziatzen hartuz. Gainerako kasue-

tan eskatutako murrizketaren arabera laguntza murriztuz joango da. Adunan erroldatua egotea ezinbesteko baldintza izango da laguntza eskatzeko.

Amaitzeko, alarma egoeraren ondorioz jarduera ekonomikoa eteteak sorrarazitako kalte ekonomikoen eragina gutxitzeko laguntzak ere emango dizkie Adunako Udalak itxita egon diren komertzio txiki nahiz ostalaritzako establezimenduei. Laguntza 500 eurokoa izango da beti ere hilabete bateko epea erreferentziatzen hartuz. Halaber, 100 euroko gehigarria izango dute %100 jardunaldian daukaten langile bakoitzeko. Lanaldi partziallean aurkitzen diren kasuetan, gehigarria era proportzionalean emango da. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Alta historikoa aurkeztea ezinbesteko baldintza izango da laguntza jaso ahal izateko eta derrigor eduki beharko dute helbide fiskala Adunan laguntza eskatzen duten establezimenduek.

Laguntza hauek hilabeteko 1.000 euroko muga izango dute eskatzaile bakoitzeko. Diru laguntzaren oinarriak Adunako Udalaren web orrian eskuragarri daude.

GUTUNA

Haur eskolara buelta konfinamendua eta gero

Covid-19a iritsi da. Errealitate berri honetara egokitu behar gara eta hau horrela dela lehenbailehen aitortzen badugu, denbora gehiago izango dugu hausnartzeko eta zein neurri hartuko ditugun ondo pentsatzeko.

Jendartearen arlo guztietan izan du eragina, baita hezkuntzan ere. Lanean jarraitzen dugu eta ilusio eta arduraz ari gara familiarekin batera egoera berri honi aurre egiten, jabetzen baikara egoeraren berezitasunaz, eta arduraz urratsak ematearen garrantziaz.

Ematen ari diren erabakiek ardurak hartzen dituzten artean haurtzarokoaren ezagutzaren ezjakintasun oso bat dagoela adierazten dute. Guk lan egiten dugun adin tarteari dagokionez (0-2), min handia ematen digu entzuterakoan edo irakurtzerakoan haur eskoletan egiten duguna ez dela ez hezitzailea ezta pedagogikoa ere. Haur eskolan heziketa bat jasotzen dute. Haurra agurtzen dugunean, hezten ari gara; fardela aldatzerakoan, hezten ari gara; bazkaria eskaintzen diogunean, hezten ari gara; haurrak nola jolasten duen behatzen dugunean, hezten ari gara. Bizipen hauek bizitza osorako izango dira, eta jasotakoa, etorkizunean izango den helduan eragina izango du. Hau horrela izanda, gure lana erantzukizunez burutzen dugu, aipatu dugun bezala, haur eskolan hezten ari baikara.

Ez dugu begirada ezkor bat heldarazi nahi, guztiz kontrakoa. Irurako Haurreskolako hezitzaileok pentsatzen dugu izugarritzko aukera dugula nolako haur eskolak eraiki nahi ditugun hausnarketan murgiltzeko. Guk, argi dugu non jarri nahi dugun erdigunea: norbera eta besteenganako harremanetan oinarrituta nahi dugu, non afektibitatea, errespe-

tua eta solidaritatea gailenduko den eta naturarekin harremanetan egongo den. Hau dena zergatik? Etorkizunean izango diren helduengan eragina izango duelako, bizi garen jendarte orekatuago bat eraikitzeko, norbere buruarengan eta besteenganako konfiantza izateko, inguruan gertatzen denaren interesa azaltzeko.

Ziur egon, haur eskola berriro irekitzerakoan haurren ongizate fisiko, psikiko eta emozionalaren alde lan egiten jarraituko dugula irmoki. Emozionalki, haurrak babestua egon daitezten, honek bere osasunean eragin zuzena izango duelako, heziketa ematen duen haur eskola batean sinesten baitugu, ez beldurrean oinarritzen den batean.

Irurako Haurreskolak, hau dena gauzatzeko hezitzaile taldeak haurrari ematen dion babesaz gain, garrantzizkoa diren baliabide fisikoak ere baditu, haurrak babesten dituen espazioak, haurren garapenaren araberrak, prestatuak eta zainduak; leiho eta ate ugariekin, honek etengabeko aireztatze aukerak ematen dituelarik; hain garrantzizkoa den kanpora irteteko aukera aberasgarria, haur eskola berak duen kanpo espazio zabal eta posibilitatez bete. Haur eskola txikia da gurea, hurbilekoa, bisitatu nahi gaituen guztientzako irekia.

Amaitzeko, esan nahiko genizuke Irurako haur eskolan ilusio handiarekin ari garela lanean, eta gure indar guztiak horretara bideratzen ari garela, gure txikiak kalitatezko inguru batean hazten ikusi nahi ditugulako. Familiarekin hazte prozesua konpartitzen jarraitu nahi dugulako. Jendartearen eragiten jarraitu nahi dugulako. Herriarekin elkarlanean aurrera egiteko gogoia dugulako.

Etaparen honen garrantzia aldarrikatzen jarraituko dugu.

Bakarne Reguilaga, Ixone Urzelai, Maite Amundarain

Irurako Haurreskolako hezitzaileak

'Anoetako emakumeak herriari' erakusketa, digitalki

ANOETA // Martxoaren 5ean inauguratu zuten erakusketa liburutegian. Tamalez, COVID-19a dela eta, astebete soilik egon zen ikusgai, eta horregatik formatu digitalean zabaltzea erabaki dute. Erakusketa honen bidez balioa eman nahi izan diote herriko emakumeek hainbat esparrutan herriari egiten dioten ekarpenari, haien jarduna bistaraziz. www.anoeta.eus helbidean dago ikusgai erakusketa.

Maileguak itzultzeko zerbitzua jarri du martxan liburutegiak

ANOETA // Udal liburutegian zerbitzuak egokitze aldera, maileguak itzultzeko gunea prestatu dute liburutegiko sarreran. Itzuli ondoren liburuak 14 eguneko berrogeialdia gorde behar dute gero, maileguak jasotzen hasi dira dagoeneko. Horretarako honako ordutegia jarri dute: 09:00etatik 13:00etara. Edozein zailtza izanez gero, udal liburutegiko telefonora hots egin daiteke: 943 54 38 97.

Liburuak mailegatzeko aukera izango da Larraulen

LARRAUL // Liburutegia eta haur txokoa itxita mantentzera behartzen du osasun egoerak, baina liburuak mailegatzeko aukera jarri dute herritarren eskura. Astelehen eta asteazken goizean 09:30etik 12:30era eta ostiral arratsaldeetan 16:00etatik 19:00etara izango da horretarako aukera. Liburuak jaso eta itzuli ahal izango dira ordutegia barruan. Segurtasun neurriak betez, mailegurako baldintza batzuk jarri dituzte udal liburutegitik.



1 TXINDOKIKO ITZALA

Abentura Parkea

Bi lagunentzako bina sarrera

www.txindokikoitzala.com/eu/
info@txindokikoitzala.com
628 947 253 | 943 654 757
ABALTZISKETA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



harpidedun izateak badu saria zozketa

2 EKAINBERRI museoa:

Kobazuloak + esperientziak

Bi lagunentzako sarrera bikoitza

www.ekainberri.com
ZESTOA
943 868811
info@ekainberri.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 OSIN MASAJE ETA ESTETIKA

ZENTRUA

Masajea

609447090
665754930
Hozpel kalea
ANOETA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Kontsumo bonuen salmenta «erritmo onean» hasi dute

Amasa-Villabonako komertzioak sustatzeko kanpaina martxan da atzotik; 3.000 bonu banatuko dituzte, eta atzo eguerdirako 1.000 bonu salduak zituztela azaldu dute

Irati Saizar Artola Herria

Atzo goizean hasi ziren kontsumo bonuak saltzen Amasa-Villabonan. Pozik agertu zen udala, eguerdian egindako balorazioan. Goizean zehar, 125 pertsona gerturatu ziren bonuak erostera eta 1.000 bonutik gora saldu zirela azaldu zuen Beatriz Unzue Amasa-Villabonako alkateak. «Erantzun horrekin, herritarrok herria berriro berpiztu nahi dugula ikusten da». Ekainaren 30a bitarte bonuak eskuratzeko aukera izango da udaletxeko erabilera anitzeko gelaren sarreran, 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era.

Herriko merkataritza sustatzeko asmoz, bonu bidezko kanpaina bat abiatu du udalak. Horretarako, 30.000 euro bideratu dituzte. Diru horrekin 3.000 txartel inprimatu dituzte eta bonu bakoitzak 10 euroko balioa izango du. Kontuan izanda atzo goizean 1.000 txartel inguru saldu zirela, epea baino lehen txartel guztiak amaituta izango direla uste du udalak.

Amaitu bitartean, ordea, herritarrek aukera izango dute bonu horiek eskuratzeko: 20 eurorekin hiru bonu erosi ahal izango dituzte (30€), 50 eurorekin 7 bonu (70€) eta 70 eurorekin 10 bonu (100€). Amasa-Villabonan edo Aiztondo bailaran bizi diren 16 urtetik gorakoek eskuratu ahal izango dituzte bonuak, eta pertsona bakoitzak gehienez 10 bonu erosi ahaliko ditu. Alkateak gogorarazi du bonu horiek erosterako orduan, txartelarekin ordaintzea gomendatzen dutela, babes neurriak mantendu ahal izateko.

Jakinarazi dutenez, bonuak denda berean edo denda ezberdinetan gastatu ahal izango dira, eta gutxienez, 10 euroko erosketan egin beharko da.

Irailaren 30era bitarte izango da bonu horiek erabiltzeko aukera. Unzuek azpimarratu duenez, itxita egon diren komertzio ho-



Udaletxeko erabilera anitzeko gelaren sarreran ari dira bonuak saltzen. I. SAIZAR

rietan erabili ahal izango dira: «Denda bakoitzak ere bere muga izango du, ezin izango dituzte 400 bonu baino gehiago jaso, hau da 4.000 euro; ez baita egokia denda batzuk diru guztia jasotzea eta beste batzuk batere gabe geratzea». Horrela, itxita egon diren denda guztietara iristea dute helburu.

MERKATARIAK ERE POZIK

09:40erako ilara osatua zegoela azaldu zuen alkateak. «Jendea beldur zen batere gabe geratuko ote zen». Bada, bonu horiek erosi eta segituan gastatzeari ekin zioten batzuk. Horrela kontatu du Arantxa Mujika Garintza mertereriakoak: «Bonua erosi bezain pronto etorri zait bezero bat erosketa egitera; ikusten da jendea gogoz dagoela». Herritarrek bertako komertzioetan kontsumitzeko ohituraren inguruan sentsibilizatzen hasiak ote dauden susmoa du Mujikak, eta horrela jarraitzea nahi luke.

Udalak horrelako kanpaina bat martxan jarri izana egoki ikusi dute merkatarik gehienek, Mujikaren arabera: «Sekulako apustua egin du udalak, eta ez dira

soilik bonuak izan, diru laguntzak ere eman dizkigute itxita eduki dugunoi». Alde horretatik, eskertua sentitu da. «Gainera, ez da kontua zenbat diru irabaziko dugun, jarrera kontua da; jarrera horrek niri asko esaten dit», dio pozik, Mujikak.

Bihar irekiko dira Orexako Ostaturuko ateak berriro ere

Inaugurazioa bihar izango da eta ostiraletik aurrera hasiko dira otorduak ematen; udalarekin elkarlan estuagoa izango du aurrerantzean

Irati Saizar Artola Orexa

Bost hilabeteren ondoren, berriro martxan izango da Orexako Ostaturua. Bihar egingo dute inaugurazioa pintxo pote moduko bat eginez, eta ostiraletik aurrera bazkari eta afariak ematen hasiko dira. Hori bai, gaurtik aurrera erreserbak egin daitezke astebururako, 943 68 22 90 telefonora deituta.

Beste buelta bat eman diote Orexako Ostaturaren kudeaketari. Oraingo kasuan ere herritar batek hartu du ardura, baina kasu honetan udalarekin elkarlan estuagoa izango duela azaldu du Eneko Maior Orexako alkateak. Izan ere, dinamizazio eta antolaketa lanak egingo ditu arduradun berriak, baina ez du ostaturan lan egingo. Langileak hartuko dituzte.

«Hasieratik konturatu ginen Ostaturaren kudeaketa sistema

honek udalarekin elkarlana ezinbestekoa zuela, eta kudeaketa zuzenagoa izateko sakondu egin nahi izan dugu», dio Maiorek. Era berean, eta aurreko filsofiarekin jarraitzeko, saiakera bat egin nahi dute bertako produktuei oraindik eta garrantzia handiagoa emateko. Ostaturuko sukaldaritzari dagokionean indar berezia egin nahi dute bertako produktuen alde, baina dendar begira ere jarriak dituzte begiak. Uda ostean aurreikusi dute denda irekitzea eta bertako produktuak ere bertan kokatu nahi dituzte.

Bueltan da beraz, Orexako Ostaturua. Abenduaren erdialdean itxi zuten eta horren aurretik, bi urtez egon da zabalik. «Guretzako nahiko naturala izan da, proiektu berdinarekin jarraitu eta sakondu egin baitugu; ezagutza bat bagenuen eta hori aprobetxatu nahi izan dugu».

BAT EGIN GUREKIN!!

ATARIA IRRATIA: 107.6 FM eta ataria.eus/irratia

Goizean

- Aktualitatea
- Solasaldiak
- Elkarriketak
-

Arratsaldean

- Euskal Herriko aktualitatea

Gauean

- Saio bereziak

Egin zure ekarpena

- Whatsapp bidez: 687 410 033
- Abestiak eskaini, zoriendu, albisteen berri eman, proposamenak egin, kexak....

ESKUALDEKO
EUSKARAZKO IRRATIA



Egoera txarrean zegoen errepide zatia egokitu du udalak. E. MAIZ

Uganera doan bide zatia asfaltatu du udalak

Ikaztegieta Udalak Tolosako Ugane auzora doan Ikaztegieta bide zatia asfaltatu eta pintatzeaz gain, abiadura moteltzeko koskak jarri ditu

Eneritz Maiz Etxarri Ikaztegieta

Ikaztegieta Udalak azken urteetan herriko bide zati bat egokitu du asfaltoa berrituz, eta pasa den astean amaitu zituzten Ugane auzora doan bideko Ikaztegieta zatiko lanak.

Gipuzkoako 2131 errepidearen eta Tolosako Ugane auzora doan bidearen Ikaztegieta zatia berritu du. 835 metro inguru luzeran eta 3.900 metro karratu inguruko azalera egokitu dutela adierazi dute udaletik. Zoladura gastatu zuen, eta arriskutsu zegoen herri bide zatia dela egokitu dutena azaldu dute.

Iazko, hau da, 2019ko aurrekontuko diru laguntzako lanak dira egin direnak. Atzeratutako lanak izan dira, eta koronabirusak gehiago luzatu ditu. Martxoan lehen egunetan asfaltatu bazuten ere, koronabirusa tarteko, pintaketa lanak pasa den astean amaitu zituzten.

Proiektu osoaren kostua 57.600 euro ingurukoa izan da. Asfaltatze lan hauek diru laguntzak tarteko egiten dituzte, eta



Bi koska ere jarri dituzte. E. MAIZ

kasu honetan, Ikaztegieta Udalak 35.000 euroko diru laguntza jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenerako, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko departamentutik. Proiektu osoaren %60 da diru laguntzarekin ordainduko duena.

Asfaltatzeaz gain, pintaketa lanak egin ditu udalak, eta seinaleak eta abiadura moteltzeko bi koska ere jarri ditu errepidean.

Bukatzeke esan, Ikaztegieta zatiaren eta Tolosakoaren artean zati bat geratzen zela bukatu gabe, eta Tolosako Udalak bere gain hartu duela zati hori asfaltatzeko lana.

Herritar guztiei banatuko dizkie maskarak Aurrera Alegiak

Interesa duten herritarrek eskaera egin beharko dute gaur, eta etxeko buzoian jasoko dituzte maskarak egun gutxiren buruan

E. Maiz Alegia

Aurrera Alegiak maskarak banatuko ditu nahi duten herritar guztien artean. Duela aste batzuk hurrekin egin zuten moduan, orain herritar guztientzat eskainiko dute maskarak eskaetako aukera.

Pasa den astetik derrigorrezkoa da toki itxietan, eta bi metro arteko distantzia mantendu ezin denean maskara erabiltzea. «Gobernuak egunez egun lege berriak iragartzen ditu, eta dagoneko hurrekin egin genuen moduan, buruan genuen helduentzako banaketa egitea», azaldu dute taldeak.

Hiru kapadun kotoizko maskarak dira banatuko dituztenak. Idatziz edota telefonoz deituta egin beharko da eskaera. Osasun neurriak bermatu ahal izateko, izen-abizenak eta helbidea zehaztu beharko ditu eskatzaileak, eta gero banaketa etxez etxe egingo dute.

AZKEN EGUNA, ESKATZEKO

Eskaerak egiteko aurreraalegia@gmail.com helbide elektronikoa jarri dute herritarren eskura. Edota 669 051 928 (Regina), 658 707 760 (Andrea) edo 619 578 915 (Maialen) telefono zenbakietara deituz lortu daitezke maskarak.

Eskaerak egiteko azken eguna da gaurkoa, ordea. Behin eskaera guztiak jasota, egun gutxiren buruan bakoitzak bere etxean jasoko duela maskara aurreratu dute.

Bidania-Goiazko Udalak maskarak ditu banatzeko

BIDANIA-GOIAZ // Bidania-Goiazko Udalak herritarren artean maskarak banatuko ditu. Maskara kirurgikoak dituzte udaletxean, baina interesa duten herritarrek eskaera egin beharko dute. 943 68 11 09 telefono zenbakira deitu edo udala@bidania-goiaz.eus helbidera mezua idatzi beharko dute, izena eta kopurua adieraziz. Gehienez bi maskara izango dira eskura pertsona bakoitzeko. Banaketa norberaren buzoira egingo da.

Hautesle erroldak erakusgai daude ekainaren 1a bitarte

AMEZKETA / IKAZTEGIETA //

2020ko uztailaren 12ko Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeak direla eta, Amezketa eta Ikaztegieta udalek hautesle-zerrendak jendaurrean izango dituzte la iragarri dute ekainaren 1a bitartean, astelehena barne. Interesa dutenek ikusi, eta hala badagokio, erreklamazioak egin ditzaten. Udaletxeko bulegoan edota telefonoz deituz egiaztatu ditzakete datuak.



ARTEAGAREN 'METAGOXO', ONENA

Amezketako I. Pintxo Lehiaketa Digitalaren irabazlea Aitziber Arteaga izan da, **Metagoxo** pintxoarekin. Publikoaren saria, berriz, Rakel Ladronek eskuratu du **Mini hanburgesa** pintxoarekin. Pasa den astean banatu zituzten sariak, eta herriko produktuekin osatutako saski eder bana jaso zuten saritzat. Amezketako Udalak aurkeztu diren pintxo guztiak bere Facebook orrialdera igo zituen, eta bertan bozkatu behar izan zuten herritarrek publikoaren saria eskuratzeko. Guzтира hamabi pintxo izan ziren. Bi pintxo 25na atsegite botorekin geratu zirenez, antolatzaileek zozketa egin zuten **Mini hanburgesa** eta **Galeper kabia**-ren artean; Rakel Ladronek **Mini hanburgesa** izan zen zorteduna. ATARIA

Txapelketak, udazkenean

Danok Danena halterofilia taldeko pultsulariak hasi dira pixkana entrenamendu saioak egiten ohiko materialekin; Espainiako Txapelketan goian izatea dute helburu beste behin

Imanol Garcia Landa

Halterofiliako txapelketak zeharo gelditu dira konfinamendua martxoan hasi zenetik. Danok Danena taldekoak Villabonako Olaederra kiroldegian duten entrenamendu eremutik atera ziren, eta ez dute aukerarik izan materiala hartzeko konfinamenduaren lehenengo fasera pasa arte. Batis Kortajarena taldeko entrenatzaileak azaldu duenez, «pulsulariren batek pisuak bazituen etxean, horiekin aritu da muskulazioa lantzen. Baina, bestela, ahal den bezala ariketa fisikoa eginez, etxean bizikleta estatikoa izanez gero hori aprobetxatuz, eta horrela moldatu dira».

Txapelketak atzeratu egin dira eta udazkena aldera egiteko asmoa dute. Nazioarteko Federazioak Europako Txapelketa egiteko nahia du, urtea ez galtzeko ezer egin gabe. Izan ere, aurtengo Olinpiar Jokoak atzeratu egin dira urtebetez, eta Europako Txapelketa erabiliko da datorren urteko Olinpiar Jokoetara joateko puntuak lortzeko. «Urriaren bukaeran-edo jarriko dute Europako Txapelketa, eta orduan Espainiako Federazioak Espainiako Txapelketa antolatu beharko du horren aurretik, Europako Txapelketarako sailkapena egiteko», zehaztu du Kortajarenak.

Urrian, beraz, egingo lirateke Espainiako txapelketak, eta mailak pilatu egingo dira. «15 eta 17 urte azpiko mailak batetik, eta junior eta absolutu mailakoak bestetik, batera egingo dira, aurretik bananduta egin izan direnean», azaldu du Kortajarenak. «Orain dauden arauekin, txanda bakoitzean hamabi pultsularik parte hartu dezakete, eta hainbat neurri kontuan hartuta, larunbata eta igandea iraungo dute txapelketek». Espainiako Txapelketara sailkatzeko, aurretik Euskadiko Txapelketak antolatu beharko dituzte. «Bilatu beharko dugu data eta lekua Euskadiko Txapelketak egiteko».

Bestalde, Liga Nazionala bertan behera geratu zen, baina Espainiako Kopa egin nahi dute, hau da, taldekako Espainiako Txapelketa izango dena. Azaro-



Ekaitz eta Jon Kepa Kortajarena, Intxaur frontoian entrenatzen. I.G.L.

an egitea aurreikusten dute, aurretik sailkapen saio bat eginez, finalera pasako diren hamabi onenak erabakitzeko.

FRONTOIAN ENTRENATZEN

Udazkenean aldatu diren txapelketak jomugan, Danok Danena taldekoak ez daude geldirik egiteko. Olaederra kiroldegitik materiala hartu zuten, eta kiroldegira berriro bueltatzeko aukera izan arte, entrenamenduak egiten ari dira ahal duten moduan. Horrela, lau pultsulari ari dira Zizurkilgo Intxaur frontoian entrenatzen arratsaldeetan, binakako txandatan, udalak baimena eman ondoren. Larraulen eta Zizurkilgoen ere zenbait pultsularik egokitu dituzte garajeak entrenatu ahal izateko, taldearen materiala eskuratu ondoren.

Konfinamendu garaian, aurretik egindako lana galdu egin dela dio Kortajarenak: «Nahiz eta beste gauza batzuk egin etxean, eta fisikoa landu, galdu egiten da. Egia esan, kirolariak bere pisuan nahiko ondo mantendu dira. Baina mugimenduak egiten hasten direnean, pisuak hartzerakoan, nabarmentzen da oso berde daudela. Orain fase bat behar da, hilabete edo hilabete eta erdikoa, bolumen pixka bat har-

tzeko. Ea hirugarren hilabetean lortzen dugun %90era iristea. Kosta egiten da hor goian zabiltzanean, egunero entrenatzen, horrelako etenaldi bati aurre egitea».

Pultsularientzat denboraldia berriro hasi dela suposatu du etenaldiak. Ekaina, uztaila eta abuztua aprobetxatu nahi dute berriro beren onenean jartzeko. «Ikusi egin beharko da abuztuaren ze aukera dugun entrenatzeko», zehaztu du Kortajarenak. Iraileira «nahiko ondo» iristeko aukera izango dutela uste du entrenatzaileak, «urte bukaera horri ondo aurre egiteko». Ahal dute nean Olaederra kiroldegira itzuliko dira, baina ikusi egin beharko dute zein izango diren baldintzak. «Horren arabera, agian komeni zaigu Intxaur frontoia entrenatzeko leku bezala mantentzea. Zizurkilgo Udala oso ondo portatu da beti gurekin, eta hitz eginez uste dut moldatu gaitzkeela, denak entrenatu ahal izateko».

EMAITZA ONEN BEHARRA

Espainiako Txapelketetan emaitza onak lortzea da Danok Danenaren helburu nagusia. Batek, taldekako txapelketan finalera iristea dute asmoa. Bestalde,

goi mailan dabilzan pultsulariek banakakoan goiko postuetan sailkatzea dute helburu. «Asko dute jokoan pultsulariek txapelketa horietan», esan du Kortajarenak. «Berezia urte osoa horri begira lantzen dute. Jasotzen duten beka txapelketa horretan lortzen duten emaitzaren arabera izaten da. Talde bezala ere diru laguntza dugu Espainiako Txapelketan egon ahal izateko, eta, beraz, guk ere emaitza jakin batzuk lortu behar ditugu, eta nahi ditugu horiek lortu ere».

Goiko postuetan geratzeko aukera, absolutu mailan, Susana Davila, Jon Sasian, Igor Sasian, Ekaitz Kortajarena, Mikel Alvarez eta Jon Ander Iriarte pultsulariek dute. 17 urte azpiko mailan, Jon Kepa Kortajarenak aukera asko ditu irabazi edo bigarren geratzeko. Junior mailan ere Xabier Amonarrirek aukerak ditu goiko postuetan sartzeko. «Pultsulari horiek guztiek saiatu behar dute postu onak lortzen, eta ondoren bekak etortzen badira, urtea aprobetxatzen».

Europako Txapelketara sailkatzeko aukera Susana Davilak eta Mikel Alvarezek izan dezakete. Madrilo goi errendimenduko

zentroan egon zen Davila, baina handik ateratzea erabaki zuen, ez baitzegoen gustura bertan. Madril bizi da, eta crosfiteko gimnasio batean aritzen da entrenatzen. «Ez luke zailtasunik izan behar nazioarteko mailan lehiatzeko, baina ikusi egin behar da nola dabilen», esan du Kortajarenak.

Mikel Alvarez da maila altuena duena taldean, baina oraindik ez du aukerarik izan entrenatzeko. «Fadurako goi errendimenduko gimnasioan eskaera egin zuen bertan entrenatzeko, eta erantzuna itxaroten ari da». Hala ere, aurkariak nola dauden ikusi egin behar dela gaineratu du Kortajarenak: «Kanariar Uhartekoek, adibidez, normal entrenatu badute konfinamendua osoan, zaila izango da beraiei aurre egitea, egoera normal batean dagoeneko zaila izango zelako».

Gogoz eta ilusioz daude taldeko kideak, baina txapelketaren unea iristean ikusiko da lehiakideen sasoia nolakoa den. Bitartean, Kortajarenak argi du: «Garraztsuena guk funtzionatu ahal izatea da. Modu horretan ondo ibiliko garela uste dut, eta ez dugu zertan gainontzekoei begira egon behar».



ASTEAZKENA, 2020KO MAIATZAK 27
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Zumardia elkarteak udari begira jarri da, eta piragua eta mendi bizikleta ikastaroak jarri ditu martxan; mendi zeharkaldi sorta eta mendia eta ingelesa batzen dituen ekimena ere prestatzen ari da.

Zumardia berriro martxan



Ekainaren 15ean hasiko dira gaztetxoenak udako piragua ikastaroarekin. IMANOL GARCIALANDA

Erredakzioa Tolosa

Natura, hezkuntza eta kirola gaztetxoei zuzendutako jardueren bitartez uztartzea du helburu Zumardia elkarteak, eta osasun krisiak jarduera etenda izan badu, berriro ere ekitera doazela iragarri dute.

Hala, «uda honetarako gazte eta helduentzat erakargarria izango den eskaintza» prestatzen ari direla azaldu dute Zumardia elkartetik. Hori bai, «beharrezkoak diren osasun neurriak hartuta eta talde txikiagoak osatuz» egingo dute.

Ekainaren 15ean hasiko dira udako piragua ikastaroarekin.

Astebeteko ikastaro trinkoak izango dira, astelehenetik ostiralerara, egunero ordu eta erdi eginenez. Natura eta inguruarekiko jarriera positibo eta arduratsua bereganatzea, taldekideen arteko harremana sustatzea, elkarrekiko errespetua, talde lana eta solidaritate baloreak transmititzea, piraguarekiko oinarritzko ezagutza eta gaitasunak garatzea, oinarritzko palada motak ezagutzea eta segurtasuna eta komunikazioaren oinarriak ezagutzea dira ikastaro honen helburuak. Gaztetxoei 42 euro (38 euro bazkideentzat) eta helduei 45 euro (40 euro bazkideentzat) ordaindu beharko dute.

Udako Mendi Bizikleta ikastaroa,

berriro, ekainaren 22an hasiko da. Astebeteko ikastaro trinkoak izango dira, astelehenetik ostiralerara, eta egunero ordu eta erdi. Gazteen artean zabaldu nahi dute mendi bizikleta, eta horrekin batera, aktibitate fisikoaz eta ingurumenaz gozatzea eta Tolosako BTT bideak ezagutzea ere nahi dute antolatzaileek. Izena eman eta informazio gehiago jasotzeko zumardia.eus webgunera jo daiteke.

Bi ikastaro horiekin batera, mendi zeharkaldi sorta bat ere zabalduko dute datorren astean, eta mendia ingelesarekin lotutako jarduera ere eskainiko dute. Animatzeko eta naturaz gozatzeko deia egin dute Zumardiatik.

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Kontsumo bonuak udaletxeko erabilera anitzeko gelaren sarreran erosi ahaliko dira, 10:00etatik 19:30era. Ekainaren 30era, edo agortu arte.

Erakusketak

Tolosa. Erraldoien bildumazalea al-dizkako erakusketa ikusgai Topic zentroan.

Tolosa. Formosako Txotxongilo Antzerkia erakusketa, Topic zentroan.

ATARIA IRRATIA

09:00-12:00. Pasahitza. Eguraldi iragarpena Iker Ibarluzearen eskutik, eskualdeko berriak, egunari begirada, eguneko elkaritzaketa (Edurne Pasaban mendigoizalea) eta helduen solasaldia.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. (H)ari naizela. Imanol Artola Felix-ek gidatuta, bertsolaritzari buruzko saioa.

28 KANALA

11:00. Etxean aktiba zaitez

11:30. Gaurkoan Tolosalde

12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!

17:00. Adinberri

17:30. Gaurkoan Tolosalde

22:00. Amets yoga estudioa

23:30. Gaurkoan Tolosalde

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Ben-goetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro eguzkitsua eta epela. Goizeko behe-lainoa desegin ostean, giro eguzkitsua nagusituko da egun osoz, nahiz eta, uneraren batean goi-hodeiren bat edo beste ikusi eta arratsalde erditik aurrera bero-hodeiren bat garatu. Bero-hodei hauek ez dute ekaitzik utziko. Haizeak ipar-ekialdera egingo du eta tenperatura maximoak nabarmen gora egingo du, 24-25 graduan joz goia.

Bihar. Giro eguzkitsua eta beroa. Goizean goizetik zeru urdina nagusituko zaigu eta eguzkiak gogotik berotzeko aukera izango du. Arratsaldean zehar bero-hodeiren bat edo beste garatuko da baina ez du ekaitzetarako joerarik izango. Haizeak ekialde/hego-ekialdetik joko du eta tenperatura maximoa nabarmen igoko da, eguneko erdiko orduetan 29-30 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta irtizien erantzukizunik.



Audi Q5 TFSIe berria

Entxufatu daitekeen Audiren teknologia hibridoa.



Autowag Tolosa

Usabal poligonoa, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi Q5 TFSIe: 220 kW (299 CV)-tik 270 kW (8367 CV)-ra. CO2 isurtze konbinatuak: 50-64 g/km (NEDC: 46-54 g/km). Kontsumo konbinatua: 17,5-20,3 kWh/100 km.



audi.es/tfsie

